

Erreferentzia kodea: ES/NA/AACF/2/030

Izenburua: LANEKO ETA GIZARTE SEGURANTZAKO PROBINTZIA ORDEZKARITZA

Datak: 1964-1986

Deskribapen maila: Funtsa

Bolumena eta euskarria: 165 instalazio unitate

Sortzailea: LANEKO ETA GIZARTE SEGURANTZAKO PROBINTZIA ORDEZKARITZA

Erakundearen historia:

Ordezkaritzaren funtsaren barruan, honako dokumentazio hau sartu da (oharra: horietako batzuek funts propio bat osa lezakete —FNASek, kasu—; baina funtsaren bolumen txikia eta gordetzen diren data berantiarrek kontuan hartuta, Lan eta Gizarte Segurantzako Probintzia Ordezkaritzaren mende uztea erabaki da, haren eginkizunak bere gain hartu baitzituen, nahiz eta antolamendu eta izendapen mendeotasuna aldatu).

GIZARTE EKINTZAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA

Apirilaren 8ko 530/1985 Errege Dekretuaren —Lan eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren oinarritzko egitura organikoa zehazten duena— 15. artikulua arabera, eginkizun hauek dagozkio Gizarte Ekintzako Zuzendaritza Nagusiari: gizarte prestazioak eta zerbitzuak zuzentzea, planifikatzea, koordinatzea eta ebaluatzea, gizarte ongizateko arloetan Estatuak dituen betebeharrak erantzunez; gizarte ekintzaren eremuan, estatu mailako gobernu kanpoko erakundeekin gizarte lankidetzak sustatzea; Estatuaren tutoretza gauzatzea, Administrazio kanpoko laguntza erakundearen gain; eta ongintza fundazio partikular —huts zein mistoen— gaineko gobernuaren babesletza betetzea.

Honako unitate hauen bidez beteko ditu: Pentsioen eta Laguntza Prestazioen Zuzendariordetza Nagusi bat, Laguntza Teknikoaren eta Tutoretzaren Zuzendariordetza Nagusi bat eta Gizarte Zerbitzuen Programen Zuzendariordetza Nagusi bat.

Hori baino lehen, 1977ko otsailaren 18ko Aginduaren bidez, Gobernazio Ministerioak Gizarte Laguntzako Zuzendaritza Nagusiaren esku utziak zituen Gobernua ongintza partikularren babesle izateko Gobernazioko ministroari esleitura zeuden ahalmenak.

Gizarte Ekintzako Zuzendaritza Nagusiaren aitzinean ebatzitako gaiak Lan eta Gizarte Segurantzako Probintzia Zuzendaritzan izapidetzen ziren.

Ongintza eta laguntza fundazioei buruz dugun dokumentazioa fundazio eskrituren fotokopiak dira. Beharbada, Gizarte Ekintzako Zuzendaritza Nagusiari aurkezten zitzaizkion legeztatzeko, baina agian Lan eta Gizarte Segurantzako Probintzia Ordezkaritzaren bidez izapidetzen ziren, Gizarte Segurantzaren mende baitzeuden.

GIZARTE LAGUNTZAKO FUNTS NAZIONALA (FNAS)

Uztailaren 21eko 45/60 Legeak —gizartean zerga eta aurrezkia aplikatzeko zenbait funts nazional sortzen dituenak— sortu zuen. Bi helburutarako sortu zen. Batetik, Espainiako herritarren bizi baldintzak hobetzen laguntzeko, asmo hauetarako zuzkiduren bidez: adingabeen eta zaharren egoitzak, haurtzaindegia, bularra ematen duten amen jantokiak eta Gobernuak zehaztutako erakundeek betetako antzeko beste zenbait. Bestetik, ongintza orokorreko edo partikularreko establezimenduei eusten laguntzeko. Dena den, ez zuen bereganatzen edo ordeztzen ongintzaren zerbitzura zeuden erakundeek ekintza. Urtarrilaren 26ko 172/1961 Dekretuak arautzen zuen haren osaera eta funtzionamendua. Gobernuari honako hauek proposatzeko helburua zuen, Eskubide Errealei zegokien zergaren gaineko errekaraguren emaitzari buruzkoak: hura administratzeko arau

orokorrak, kontzeptu bakoitzari esleitu beharreko zenbatekoak eta Ministerio interesdunek banatzeko behar zituzten zenbatekoak. Ekainaren 14ko 1315/1962 Dekretuaren bidez, Gizarte Laguntzako Funts Nazionalaren laguntzak arautu ziren adinekoentzat, gaixo babesgabeentzat eta haur babesgabeentzat.

1974ko irailaren 26ko Aginduan —Gobernazio Ministerioa berrantolatzen zuen 1974ko apirilaren 5eko Dekretua garatzen zuena—, Gizarte Laguntzako Zuzendaritza Nagusiaren (urtarrilaren 11ko 26/74 Dekretuaren bidez sortua) mendeko Prestazio Ekonomikoen Zerbitzuari agintzen zitzaion Gizarte Laguntzako Funts Nazionalaren planak eta programak egikaritzeko, bai eta Garapen Planeko inbertsio programak ere, gizarte laguntzako erakundeentzako dirulaguntzen arloan.

Gobernazio Ministerioaren egituran aldaketak sartzen zituen urriaren 30eko 2614/1976 Errege Dekretuaren bidez, Gizarte Laguntzako Zuzendaritza Nagusiak Gizarte Laguntzako Institutu Nazionala zuzentzeko ardura zuen, eta, horren azpitik, Laguntza Ekintzetako Zuzendariordetza Nagusiaren eginkizuna zen Gizarte Laguntzako Funts Nazionalari esleitutako kredituak kudeatzea. Gizarte Laguntzako Zuzendaritza Nagusiari lotuta, ministroa buru zela, “Gizarte Laguntzako Funts Nazionalaren Zuzendaritza Patronatu”ko kide anitzeko organoa zegoen.

1977ko otsailaren 18ko Aginduaren bidez —urriaren 30eko 2614/1976 Errege Dekretua garatzen zuena, Gizarte Laguntzako Zuzendaritza Nagusiari zegokionez—, Prestazio Ekonomikoen Zerbitzuak, Zuzendaritzaren mendeko Laguntza Ekintzetarako Zuzendariordetza Nagusiaren barruan, bere gain hartu zuen Gizarte Laguntzako Funts Nazionalaren planak eta programak egikaritzea eta funts horri zegozkion eta esleituko zitzaizkion beste helburu batzuk betetzea.

Apirilaren 15eko 736/1977 Errege Dekretuaren bidez, Lan Ministerioari eskualdatu zitzaizkion Gobernazio Ministerioak gizarte laguntzaren arloan zituen eskumenak. Gizarte Laguntzako Zuzendaritza Nagusiaren unitateak eta bulegoak Gizarte Segurantzako Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza Nagusian sartu ziren. Azken hori Lan Ministerioaren mende zegoen eta aurrerantzean Laguntza eta Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritza Nagusia izena hartu zuen. Gizarte Laguntzako Funts Nazionala Lan Ministerioari atxiki zitzaion. Ordutik aitzina, ministerio horren titularra izanzen zen funts horren Zuzendaritza Patronatuaren zuzendaria eta Laguntza eta Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritza Nagusiak kudeatuko zuen. Gizarte Laguntzako Institutu Nazionala erakunde autonomoa Lan Ministerioari atxikita gelditu zen.

Abenduaren 22ko 3302/1978 Errege Dekretuaren bidez, Osasun eta Gizarte Segurantza Ministerioaren mende gelditu ziren.

Urtero irekitzen zen funts horren konturako laguntzak eskatzeko epea, eta Gobernu Zibilaren bidez kudeatzen ziren. Geroago, Osasun eta Gizarte Segurantzako Ordezkaritzaren bidez, eta, horren ondotik, Lan eta Gizarte Segurantzako Ordezkaritzaren bidez.

http://www.cepc.es/revistas/revistas_sf.aspx?IDR=1&IDN=159&IDA=24501&strApplicationPath=/es/

LASO BALLESTEROS, Ángel: *La documentación de las Juntas Provinciales de Beneficencia: el caso de Valladolid*. Tabula 4, 1999.

Funtsa bera ezabatu egin zen 1981erako Estatuko Aurrekontu Orokorren Legearen bitartez, baina eutsi egin zitzaion urtero horretarako onartutako partiden bidez ematen zituen prestazioei. Hori dela eta, uztailaren 24ko 2620/1981 Errege Dekretuaren bidez (aipatutako 1315/1962 Dekretua ordezkatuz), berriro arautu ziren Gizarte Laguntzako Funts Nazionalaren kargurako laguntzak emateko prozedurak, adinekoentzat eta lanerako ezgaituta zeuden gaixo edo baliaezinentzat.

LANA BABESTEKO FUNTS NAZIONALA

Uztailaren 21eko 45/1960 Legearen III. Tituluaren bidez sortu zen (45/1960 Legea, zerga eta aurrezkia gizartearen aplikatzeko zenbait funts nazional sortzen zituen), langabeziari lotutako arazo espezifikoek aurre egiteko —baldin eta arazo horiek lana arrazionalizatzeko edo instalazioak hobetzeko planak aplikatzearen ondorio baziren—, bai eta langileen migrazio mugimenduak errazteko, kooperatibismoa zabaltzeko eta familia ugariako gurasoen artean enplegua sustatzeko ere. Eskulan enpleguetan malgutasuna sustatzeko tresna egoki moduan eratu zen, langileen onurarako, bai eta enpresaburuentzako, eta, oro har, jarduera ekonomikorako.

Funts hori Patronatu batek administratzen zuen, abenduaren 22ko 2570/1960 Dekretuak —Lana Babesteko Funts Nazionalaren Patronatua eratzekoa— eratu.

Funtsaren bidez, hainbat inbertsio eta laguntza plan egin ziren. Lan Ministerioaren mende dago.

Funts hori ere ezabatu egin zen abenduaren 29ko 74/1980 Legearen bidez —1981eko ekitaldirako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa—. Hala ere, FNASen kasuan bezala, eutsi egin zitzaion funts horri esleitutako partiden kontura ematen ziren prestazio batzuei.

GIZARTE SEGURANTZA

Gizarte Segurantzaren Lan Ministerioaren mende zegoen, Osasun eta Gizarte Segurantzaren Ministerioa sortu zuen uztailaren 4ko 1558/77 Dekretua arte.

1978ko otsailaren 10eko Dekretuaren bidez, Osasun eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren Probintzia Ordezkaritzak arautu ziren. Haien eginkizuna, Gizarte Segurantzaren arloan, familia ugarien onuradunen tituluak ematea eta berritzea zen.

Uztailaren 30eko 1854/79 Errege Dekretuaren bidez, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren —nortasun juridiko propioa— egitura eta eskumenak arautu ziren.

Martxoaren 6ko 325/81 Errege Dekretuaren bidez, Osasun eta Gizarte Segurantzaren Ministerioa ezabatu eta Lan, Osasun eta Gizarte Segurantzaren Ministerioa sortu zen.

Azaroaren 27ko 2823/1981 Errege Dekretuaren bidez, Lan eta Gizarte Segurantzaren Ministerioa sortu zen.

Gaur egun, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala erakunde kudeatzaile bat da, Lan eta Immigrazio Ministerioari atxikia.

LANEKO ETA GIZARTE SEGURANTZAKO PROBINTZIA ORDEZKARITZA

1942ko azaroaren 10eko Lege Organikoaren bidez, Probintziako Lan Ordezkaritzak antolatu ziren eta lau kategoriatan sailkatu ziren. Nafarroako Ordezkaritza bigarren kategoriakoen artean dago. Geroago, 1943ko abenduaren 21eko Dekretuaren bidez, 1942ko azaroaren 10eko Lan Ordezkaritzaren Legea aplikatzeko Erregelamendua argitaratu zen.

Lan Ministerioaren Erregelamendu Organikoa onartzen zuen otsailaren 18ko 288/1960 Dekretuaren bidez, Lan Ordezkaritzaren eginkizunak eta egitura arautu ziren berriro.

Apirilaren 3ko 799/1971 Dekretuaren bidez —Lan Ordezkaritzaren organikoa eta funtzionala—, berriro antolatu ziren.

1974ko abenduaren 10eko Aginduaren bidez, lehen kategoriara igo zen Nafarroako Lan Ordezkaritza, Coruña eta Pontevedrakoekin batera.

Martxoaren 6ko 325/81 Errege Dekretuaren bidez, Lan Ministerioa eta Osasun eta Gizarte Segurantzaren Ministerioa kendu ziren eta Lan, Osasun eta Gizarte Segurantzaren Ministerioa sortu zen.

Azaroaren 27ko 2823/1981 Errege Dekretuaren bidez, Lan eta Gizarte Segurantzaren Ministerioa sortu zen. Lan eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren egitura organikoa ezartzen duen otsailaren 12ko 275/1982 Errege Dekretuaren bidez, Lan eta Gizarte Segurantzaren Probintzia Zuzendaritza izena hartu zuten lan ordezkaritzek.

Lan arloko Estatuaren zerbitzuak 1986an eskualdatu ziren Nafarroara.

Laneko Probintzia Ordezkaritzak izapidetzen zuen familia ugarietako buruzko dokumentazioa ere sartu zen.

Funtsaren antolamendua:

030.01 ADMINISTRAZIOA

030.01.01 Jardueren memoriak

030.02 GIZARTE EKINTZA

030.02.01 Fundazioen babesletza

030.03 FAMILIARENTZAKO BABESA ETA LAGUNTZA

030.03.01 Familia ugaria izaeraren aitortza

030.04 GIZARTE LAGUNTZAKO FUNTS NAZIONALAREN (FNAS) KONTURAKO LAGUNTZA PRESTAZIOAK

030.04.01 Aldizkako banakako laguntzak

030.04.02 Ez-albizkako banakako laguntzak

030.04.03 Minusbalia-tuei arreta emateko erakundeentzako laguntzak

030.04.04 Hirugarren adinekoei arreta emateko erakundeentzako laguntzak

030.04.05 Haurrei arreta emateko erakundeentzako (haurtzaindegia) laguntzak

030.04.06 Baztertuei arreta emateko erakundeentzako laguntzak
030.04.07 Toxikomanoei arreta emateko erakundeentzako laguntzak
030.04.08 Ijitoei arreta emateko erakundeentzako laguntzak

**030.05 LANAREN BABESERAKO FUNTS NAZIONALAREN (FNPT) KONTURAKO
LAGUNTZA PRESTAZIOAK**

030.05.01 Minusbaliatuak laneratzeko laguntzak

Sarrera baldintzak:

Ebaluazio Batzordeak dokumentazioa eskuratzeko epea ezartzen ez duen bitartean, Artxiboei eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legearen 20. artikuluan ezarritakoa bete beharko da.